



DESATADURAS

Nerea Lekuona



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

“Desataduras”. Nerea Lekuona

Gaur egun, trantsizioaz aritzea gehiago da politikaz aritzea, historiaz baino. “Trantsizio” deitutakoarekin lotuta egon den imajinarioak –ezarpen sinbolikoko erregimen (trantsitokrazia) bihurtzeraino berarekin lotua egon denak– euste-mekanismo gisa funtzionatzen jarraitzen du, eta erakusketa honetan desegiteko material gisa aurkezten da, arte garaikideko tresnen bitartez aska daitekeen korapilo gisa (irudi-, hitz, esaldi- eta soinu-korapiloa).

Nerea Lekuonaren lanak ez du garai hori epaitu edo berrikusi nahi; aitzitik, harremanak ezarri nahi ditu paketatze ofizialaren eta subjektibotasun berriak ekar ditzaketen bokazio estetikoko edo fikziozkoko proposamenen artean. Imajinario politikoen eta sozialen eraikuntza aztertzea du xede, kultura- eta ikus-ekoizpena zentzuaren sorreran eragiten duen elementu gisa txertatzeko, eta ez elementu pasibo gisa. Trantsizioaren inguruan ospakizun- eta amnesia-ikuspegia nagusitu da, eta horri buruzko ikuspegi kritikoa eskaini nahi da batez ere, hartara, pentsamoldeak, memoriak, borondateak, desioak eta emantzipatzeko proiektu kolektiboak ere aska daitezten.

Ibilbidea penintsula-artxipelago batetik abiatzen da, eta kolore urdina da bertatik ihes egiteko modu bakarra; diktadura zeharkatzen du edo, hobeto esanda, diktadurak isla edo itzal gisa nola zeharkatzen gaituen ikusten dugu. Behin eta berriz errepikatzen diren esaldietatik eta itzulinguru historikoetatik pasatzen da; promes politikoak azaltzen ditu eta agirian utzi amaierarik gabeko erroiluak bailiran (“promes egin dezaket”). Eta agintarien ahotsari aurre egiten dio (“kalea nirea da), amaieran “demokraziara” iristeko, zein proiektatutako irudi distorsionatuen bidez bakarrik uler daiteken.

“Dena lotuta dago, ondo lotuta”. Beti da askatzen hasteko unea.

Arturo / fito Rodríguez

“Desataduras”. Nerea Lekuona

Hoy, hablar de la Transición es hablar de política más que de historia. El imaginario que ha acompañado a la denominada “Transición” hasta convertirlo en un régimen de implantación simbólica (“transitocracia”), sigue funcionando como mecanismo de sujeción y se presenta en esta exposición como material de desguace, como un nudo (de imágenes, palabras, frases y sonidos) que es posible desatar con las herramientas de la práctica contemporánea del arte.

El trabajo de Nerea Lekuona no trata de enjuiciar o de revisar este periodo, sino de establecer relaciones entre el empaquetado oficial y las propuestas de vocación estética o ficcional capaces de aportar nuevas subjetividades. Se trata más bien de analizar la construcción de imaginarios políticos y sociales para incorporar la producción cultural y visual no como un producto pasivo sino como un elemento activamente implicado en la producción de sentido. Se trata, sobre todo, de ofrecer una perspectiva crítica sobre la visión celebratoria y amnésica que ha prevalecido en relación a la Transición para desatar, también, las mentalidades, las memorias, las voluntades, los deseos y los proyectos colectivos de emancipación.

El recorrido va desde un archipiélago de penínsulas del que solo es posible escapar mediante el color azul; atraviesa la dictadura o, mejor dicho, vemos como la dictadura nos atraviesa simultáneamente como reflejo y como sombra. Transita por las frases recurrentes y los circunloquios históricos, despliega y deja en evidencia las promesas políticas como si fueran un rollo sin fin (“puedo prometer”). Y se enfrenta a la voz de la autoridad (“la calle es mía”), para llegar finalmente a una “democracia” que solo es posible entender a través de las imágenes distorsionadas que proyecta.

“Todo está atado y bien atado”. Siempre es momento de comenzar a desatarlo.

Arturo / fito Rodríguez